

# AIARALDEA *hemen*



AMAIA YANIZ BASTERRETXEA:  
**“Uste nuen ezin nintzela teknoaren fanatikoa eta euskalduna izan, baina oso erratuta nengoen”** 16-17 or.

AIARALDEA JAIETAN:  
**Tertangako, Arakaldoko, Aretako, Aiarako eta Ugarteko jai egitarauak eskura**



## Arropa zikinetan memoria igurtziz

AIARALDEA 5  
**Sei hilabeteko espetxe zigorra ezarri diote Tubacexeko langile bati.**  
Ekainean epaitu zuten behargina eta isun ekonomiko bati ere egin beharko dio aurre

LAUDIO 6  
**Glavistako 240 langileen etorkizuna kolokan dagoela ohartarazi dute**  
Salerosketa prozesuan egondako desadostasunek egoera korapilatu dute

ZIENTZIA 10  
**Baratzeko artropodoak aztertu ditu Ainhoa Urkijo Neikerreko doktoregaiak**  
Dibulgazio testua idatzi du Ainhoa Urkijok bere ikerketaren berri emateko

KULTURA 12-13  
**“Zuhaitzen erretratuak egiten ditudala esan ohi dut maiz”**  
Erakusketa inauguratu berri du Iñigo barron artistak Orduña Museoan

KULTURA 15  
**Andere Dantza Taldea, 25 urte korrontearen kontra dantzan**  
Bere ibilbide oparoaren berri eman du dantza taldeak

KIROLA 18-19  
**Victor Urquijo, bi hamarkadaz futbol bikaina eman zuen laudioarra**  
Villosa CD taldean hasi zen futbolaria omendu zuten iragan astean Kasinoan

KIROLA 20  
**Profesional mailan kantxan tokia hartuz doa Iker Larrazabal**  
Masters CaixaBank txapelketan lehiatuko da aurtengo udan, profesional mailako pilotaririk onenekin

# erreportajea



Agiñigako latsarria duela gutxi berriztatu dute. [Aiaraldea.eus](http://Aiaraldea.eus)

## Latsarriak: kate-begi berriak memoriaren transmisioari

Ez da mende erdi igaro Aiaraldeko emakumeek latsarri eta erreka bazterretan arropak eskuz garbitzen zituztela. Lan gordin hura gogora ekartzeko ekimenek memoria bizirik mantendu nahi dute belaunaldiz belaunaldi.



Testua eta argazkiak  
**Aimar Gutierrez Bidarte**

Kontu zaharra dirudi, baina ez da hain aspaldikoa. Garbigailuak etxe guztietara iritsi aurretik eskuz garbitzen ziren arropa, izara eta etxeko oihal guztiak. Etxeko zama guztia bere gain zuten emakumeen lana zen hura. Ohikoan, kolektiboan egiten zuten, auzokide guztiek batera. Lan astuna izanik ere, emakumeak elkartu eta elkar babesteko zuten espazio ez-misto bakaretakoa zen. Herri erdian zeuden latsarriak edota erreka bazterretan emakumeen arteko aliantza horren lekuko bilakatu ziren urte luzez.

Hain zuzen ere, emakumeek mende luzeetan utzitako aztarnak irudikatu zituzten ekainaren 25ean Agiñigako latsarriaren bueltan egindako ekitaldian. Duela ez hainbetse arropa garbitzeko erabiltzen zen espazio publikoa, herriko emakumeen historia goratzeko tokia bilakatu zuten, eta horrela izango da aurrerantzean ere. Dozenaka aiarrak batu ziren egitaspora, eta langintza ez hain zahar eta oinarritzko horren nondik norakoak berreskuratu zituzten.

### Lantenoko museo bizia

Agiñigakoa ez da “antzina” arropa nola garbitzen zen erakutsi eta berreskuratzeko Aiaran egindako saiakera bakarra. Duela 30 urte antzeko egitasmo bat egin zuten Lantenon, Luis Paduraren ekimenez. Cristina Dominguez eta Edita Udaeta dira latsarri-lanaren berreskurapenean parte hartu zutenetako bi. Bertan izan ziren ere, Editaren ama zena

eta Cristinaren izeko zena ere. Cristinak amari ikasi zion xaboia egiteko prozesua, eta lekukotza hori eskaini zuen duela 30 urte egindako ekimenean, baita duela bi aste Agiñigan egindako ekitaldian ere.

Hiru hamarkada geroago Aiaraldea Komunikabidearekin elkartu dira Cristina, Edita eta Luis, Lantenoko auzokide den Ana Mari Alayoren laguntzaz.

“Lantenoko Eskolaren helburu nagusietako bat Aiarako gaiak lantzea zen”, oroitu du Luis Padurak. “Bide horretan, konferentzia ugari egin izan dira urte luzez bertan, lurrari lotutako gaiei buruzkoak nagusiki. Une batean ‘museo biziak’ egitea okurritu zitzaigun. Aspaldi Aiaran egiten ziren zenbait langintza berreskuratzea zen helburua. Ikazkinen inguruko erakusketa bat egin genuen, eta bere garaian ikatza egiten zuten herritar batzuek hartu zuten parte. Laia erakusketa bat ere egin genuen, laiariek erabiltzen zuten materialaren erakusketa batekin batera.”

Hurrengo urratsa latsarrietan edota erreka bazterretan arropa nola garbitzen zen eta xaboia nola egiten zen gogoratzen zuten emakume aiarrak batzea zen, eta horrela egin zuten. “Saiatu ginen arropa garbitzeko erabiltzen ziren materialak berreskuratzen. Kexaako komentuan zegoen latsarri pribatutik hainbat gauza ekarri genituen. Lixiba egiteko harria eta kubeta, aldiz, Lantenoko baserrietatik atera genituen”, azaldu du Padurak.

Material guztia bilduta eta prozesua nolakoa zen ondo ikeritu ostean, praktikan jartzea eta antzeztea baino ez zuten faltan

## erreportajea

Lantenoko bizilagunek. “Dokumental txiki bat grabatu genuen. Lantenon ez zegoen latsarririk, eta errekan egiten zuten arropa garbiketa. Prozesu guztia jaso genuen bidez eta argazkitan. Material guzti horrekin triptiko txiki bat argitaratu genuen, prozesua berreskuratzeko asmoz. Saraube udal aldizkari 37. alean ere erreportaje bat eskaini zioten ekimenari. Urte batzuk geroago, Aunia aldizkari etnografikoan ere eman zuten gure ‘museo biziaren’ berri”, gogoratu du Luis Padurak.

**Xaboiak eta lixiba**

Garbiketa prozesuan ezinbestekoak ziren xaboi eta lixibak. Produktu kimiko komertzialen faltan, etxean egindako materialak baliatzen zituzten latsarri-lanean, belaunaldiz belaunaldi transmititutako tekniken bidez.

Xaboa koipea baliatuta egiten zuten. “Garai hartan ez genuen asko, txiroak ginen eta etxean zegoen apur guztia baliatu behar genuen. Horregatik sukaldatzeko erabiltzen genuen koipearekin egiten genuen xaboa. Olio birziklatuarekin ere egin zitee-

**“Saiatu ginen arropa garbitzeko erabiltzen ziren materialak biltzen; Kexaako komentuan zegoen latsarri pribatutik hainbat gauza ekarri genituen”**

keen, baina olio urriagoa eta garestiagoa zen eta gehiago filtratu beharra zegoen”, oroitu du Cristina Dominguezek.

Koipeak askatutako likidoak burdinezko lapiko batean epeltzen zituzten. Bigarren lapiko batean, aldiz, soda kaustikoa eta ura berotzen zituzten. Tenperatura berdinerira iristen zirenean haiek nahastu eta hoztu egiten zuten. Guztiz gogortu aurretik xaboi kuboak mozten zituzten. “Gaur egun modan jarri da berriro ere xaboiak egitea, baina orain askoz landuagoak dira. Leungarriak botatzen zaizkie orain, baita perfumeak ere. Nik teknika nire ama zenarengandik ikasi nuen, etxean egiten zen moduan.”

Editak herriko latsarrira joan beharrean etxe alboko errekan zegoen putzu batean garbitzen zituen arropak amarekin. Lixiba industrialak baliatzen zen ordu-rako eta ez du gogoan lixiba errautsekin egiteko prozesua bizi izana. Izan ere, duela 90 urte utzi zioten lixiba errautsekin egiteari. Halaber, prozesu hori berreskuratzen saiatu ziren ere Lantenoko ‘museo biziaren’.

**“Garai hartan ez genuen asko, txiroak ginen eta etxean zegoen apur guztia baliatu behar genuen. Horregatik sukaldatzeko erabiltzen genuen koipearekin egiten genuen xaboa”**

**Latsarriak Aiaraldean**

Langintza ez hain zahar horren hamaika aztarna daude eskualdean barrena barreiatuta. Aiaran soilik hamar latsarri publiko baino gehiago daude; Kosteran, Añesen, Menagarain, Agiñigan... Beotegin, aldiz, bi daude. “Menagaraikoa oso ondo kontserbatzen da”, nabarmendu du Padurak.

Erreka gertu duten herriak dira latsarria izan ohi ez dutenak: Lanteno, Erretes, Izoria, Zuatza... Erretesen arropak garbitzeko harri bat zegoela gogoratzen du Padurak, herriko errotatik gertu. Uholde batek eraman zuen.

Aiaran ez ezik eskualdeko gainerako herrietan ohiko egiturak ziren latsarriak. Lendoñobeitin bi zueden, bata Uria auzoan eta bestea Pozan. Laudion, esaterako, tren geltoki ondoan zegoen latsarria, eta oraindik ere kontserbatzen da egituraren parte.

Etxeetara ur-korrontea iritsi zenean utzi zioten gutxika gutxika latsarrietan eta erreka bazterretan arropa garbitzeari. Aspal-diko kontua dirudi, baina duela 50 urte gertatu zen hori.

“Amak lehenengo garbigailu horietako bat erosi zuen nire anaia soldaduzka egitera joan



Agiñigako latsarrian ekitaldia egin zuten ekainaren 25ean, emakumeen “lorratzak” bertan goratzeko. [Aiaraldea.eus](http://Aiaraldea.eus)

# erreportajea

zenean. Hormigoi-makina handi bat bezalakoa zen hura, eta oraindik ere errekarera eraman behar genituen arropak urberritzeko”, azladu du Edita Udaetak.

**“Urte osoan zehar garbitu behar ziren arropak, baita neguan ere; berdin zion eguraldiak edota ura izoztuta egoteak, eskuak izoztuta eta sabañoiez beteta bueltatzen ziren etxera”**

## Lan gordina

Astean behin egiten zuten arropa garbiketa, leku askotan ekintza kolektiboa zen eta herriko emakume ugari batzen ziren jardunean. “Gure herrian astelehenetan egiten zen garbiketa, eta asteazkenean beste emakume talde batek arropa guztiak lisatzen zituzten”, azaldu du Cristinak.

Luis paduraren ama Untzako zen; oraindik ere gogoan du nola jaisten ziren arropaz goraino kargatutako idi-gurdi batekin Altube errekaraino. “Egun osoa ematen zuten bertan arropa garbitzen. Garbitu ahala sastraken gainean uzten zuten dena lehortzen, eta iluntzerako guztia ondo tolestuta zutela bueltatzen ziren etxera”.

Lan gogorra zen. Arropa pila handiarekin kargatu behar zuten latsarriraino, baina gogorrena bertatik etxera bueltatzea zen, arropa hezeak bikoitza pisatzen baitzuen. Orduak eta orduak ematen zituzten arropak igurtziz. “Udan goxoagoa zen lana, baina urte osoan zehar garbitu behar ziren arropak noski, baita neguan ere. Berdin zion eguraldiak edota ura izoztuta egoteak, garbitu beharra zegoen. Neguan eskuak izoztuta eta sabañoiez beteta



Goian ezkerrean Cristina Dominguez, Ana Mari Alayo, Luis P

buelatatzen ziren etxera”. Bere gorditnatsunean, ordea, bazuen saretzerako eta elkar zaintzarako espazio izatearen sena. Herriko emakume asko elkartzen ziren bertan, eta orduak eta orduak ematen zituzten elkarrekin gauzak konpartitzen. “Neska gazteek oso gogoko zuten latsarri-lanetara hurbiltzea. Etxean aipatu ere egiten ez ziren kontuetaz mintzatzen ziren bertan emakume nagusiagoak. Gaur egungo ‘Sálvame’ zen hura”, gogoratu du Cristinak barre artean.

## Memoriaren garrantzia

“Balioan jarri behar da ema-

**“Arte eszenikoen begiradatik jorratu nahi dugu latsarrien historia”**

kumeez mende luzez egindako lan gogor hau”, aldarrikatu du Ana Marik, latsarrien esistentzia berreskuratzeak duen garrantziaz galdetuta. “Arropak garbitzea etxean egin beharreko lanen zerrenda luzeko atal bat baino ez zen. Seme-alabakzaindu behar ziren, ogia egin, bazkaria prestatu... Garai hartan ez zitzaion lan eskerga horri behar besteko baliorik ematen, orain dugu ardura hori gogora ekarri eta baloratzeko”.

## Memoria gorpuztuz

Memoria kolektibo horri “gorputza jartzeko asmoz” dantza pieza sortzen ari dira Patas de

Gansa kolektiboko Leire Sanjurjo eta Iratxe Bilabo sortzaileek. Egonaldia egin berri dute Faktorian, esku artean duten *Larriak azpian* proiektuaren esperimentazio fasean sakontzeko, baina oso argi daukate zer kontatu eta aldarrikatu nahi duten: “Arte eszenikoen begiradatik jorratu nahi dugu latsarrien historia”.

Arropa eskuz garbitzeak zuen “potentzia fisikoak” erakarririta murgildu ziren proiektuan; baina azkar ohartu ziren geruza gehiagok biltzen zutela latsarrien historia: “Bi ildo uztartuko ditugu latsarrien gaia lantzerakoan. Alde batetik, lanaren izaera fisikoak, zama eta gordintasuna.

## erreportajea



adura eta Edita Udaeta. Beste argazkiak Agiñigako latsarrian egindako ekimean. [Aiaraldea.eus](http://Aiaraldea.eus)

Bestetik latsarrietan emakumeek sortzen zuten elkar zaintza eta babeserako espazioaren esentzia. Eta asko interesatzen zaiguna ere zera da: nola herriaren erdian zegoen espazio batean inork ez igartzea bi aspektu horiek suposatzen zutena". Dokumentazio lan handia egin dute, latsarrien inguruan gertatzen ziren ahalik eta ekintza gehien biltzeko. Hortik abiatuta, tailer batzuk antolatzen asmoa dute, dantza-pieza aurkezten duten herrietan belaunaldi desberdinetako emakumeak elkartu eta transmisioa bermatzeko: "Pieza honek bide asko ireki dizkigu, horren adibide dira orain abiatzen ari garen

tailer batzuk. Gure asmoa herri desberdinetan adin desberdinetako emakumeak elkartzea da, gorputzaren bidez emakume nagusien testigantzak eta bizipenak jaso eta belaunaldi gazteei transmititzeko. Aurreikuspenen arabera, udazkenean aurkeztuko dute *Larriak azpian* pieza. Entsegu irekia eskaini zuten iragan astean Faktorian eta oso pozik daude egindako aurrerapausoekin: "Kanpo begirada bat ezinbestekoa dugu gure sorkuntza prozesua bideratzeko". Eraitza erakusteko irrikaz daude, memoriaren transmisioari kate-begi berri bat lotzeko.



Faktorian egin zuten entsegu irekia Leire Sanjurjok eta Iratxe Bilabok, *Larriak azpian* pieza prestatzeko. [Aiaraldea.eus](http://Aiaraldea.eus)

# herriz herri

## Aiaraldea

Sei hilabeteko espetxe zigorra eta isun ekonomikoa ezarri dizkiote atxilotetan erresistentzia erakusteagatik. Hala ere, ez da kartzelara sartu beharko.

# Sei hilabeteko espetxe zigorra ezarri diote ekainean epaitutako Tubacexeko langileari



Atxilotetaren unea, 2021eko otsailaren 23an. [Aiaraldea.eus](http://Aiaraldea.eus)

Testua **Aitor Aspuru Saez**

Ekainaren 15ean epaitu zuten Gasteizen Tubacexeko langile bat, 2021eko otsailaren 23an enpresako Laudioko lantegiaren aurrean gertatutako istiluengatik. 21 hilabeteko espetxe zigor eskaerari egin zion aurre eta Maria Antonia Blanco Briosca epaileak sei hilabeteko espetxe zigorra ezarri dio "erresistentzia" leporatuta. Hala ere, ez da kartzelara sartu beharko, zigorrak ez baitu horretarako gutxienekoa betetzen.

Horrez gain, beharginak 536 euroko kalte-ordainak kitatu beharko dizkie hiru ertzaini (140, 144 eta 252 euro, hurrenez hurren), atxilotetan hatzamarretan eta belaunean mina hartu zutelako.

Epaileak ontzat hartu zituen agenteen adierazpenak, nahiz eta

polizien arteko kontraesanak agerikoak izan (bik esan zuten objektu bat botatzeagatik eta ez identifikatzeagatik atxilotu zutela grebalaria. Beste batek, aldiz, deklaratu zuen ertzain bati eraso egiteagatik atxiki zutela).

Ondorioz, atxilotetan erresistentzia erakutsi zuela jo du frogatutaz epaileak, eta zigor txikiena jartzearabaki du: sei hilabete.

Horrez gain, kalte-ordainei ere egin beharko die aurre beharginak, atxilotetan "besoak mugitzean eta ostikoakematean" ertzainei lesioak eragiteagatik. Edonola ere, grebalaria helegitea jarriko dio epaiari.

### Langilearen bertsioa

Ertzaintzako agenteen bertsioen arabera (elkarren artean ezberdinak), beharginak objektu bat botatzion lantegitik ateratzen zuten zuzendaritzaren autobusari. Hori dela

eta, poliziak bera identifikatzen saiatu ziren eta langileak ihes egitean bere gainera bota ziren. Beste agente batek erantsi zuen objektua bota ez ezik, polizia bati eraso ere egin ziola grebalaria.

Bere adierazpenean, beharginak aitortu zuen hutsik zegoen tabako paketea jaurti ziola autobusari, baina ukatu zuen ertzain bati eraso izana edota identifikatzeko agindua jasotzea. Horregatik, hain zuzen, poliziak bere gainean botatzean aurka egin zien, ez zuelako ulertzen zer gertatzen ari zen eta mina egiten ziotelako. Hain zuzen, langileak adierazi zion Aiaraldea Komunikabideari atxilotetaren ondorioz lesioa duela eta geroztikezin duela pisua jaso eskuineko besoarekin.

Ertzainek, ordea, deklaratu zuten arreata berezia jarri ziotela atxilotetan minik ez eragiteari. Langileak esan dio Aiaraldea Komunikabideari, ironiaz, epaiketean atxilotetako hiru ertzainek hitz egiten bazuten ere, batek ere ez zuela onartu eskuburdinak jarri izana.

Hala eta guztiz ere, gogoratu beharra dago langileari agintaritzaren aurkako atentua ere leporatzen ziola Ertzaintzak, eta, berez, hori zen, izatez, atxilotetaren arrazoia.

Dena den, epaileak ez du sumatu horrelako deliturik gertakarietan. Gauzak hala, beharginak jaso duen zigorra poliziaren esku-hartzearen aurrean erakutsitako "erresistentziagatik" izan da.

### 2021eko otsailaren 23a

Egun hori bereziki gatazkatsua izan zen Tubacexeko greba luzean, lehenengo aldiz istiluak egon baitziren grebalariekin eta poliziaren artean. Poliziaren bortizkeria hainbat hedabidetan agertu zen eta Espai-

niako Estatu osoan izan zuten lehenengo aldiz mobilizazioaren berri. Hiru atxiloturekin amaitu zen borroka egun hori.

### Bigarren epaiketa

Ekaineko epaiketarekin, jadanik bi dira Tubacexeko grebari lotuta egin diren auziak eta atera diren sententziak. Lehenengoa Aintzane Mendiarena izan zen. Kasu horretan, auzipetutako langilea absolbitu zuen epaileak.

### 20 urteko espetxe eskaerak

Eskaera fiskal guztiak aintzat hartuta, 20 urte baino gehiagoko kartzela zigor eskaerak egin dituzte Tubacexeko grebari lotutako auzietan. Bost pertsona daude oraindik epaiketaren zain: Tubacexeko bi langile eta eskualdeko hiru gazte. Azken hiru horiek irailean izango dute zita Gasteizko epaitegietan.

## Laudio

# Glavista enpresaren egoera bideratuko lukeen erosketa prozesua bertan behera gera daitekeela ohartarazi dute



Mobilizazio ugari egin dituzte Glavistako langileek euren lanpostuen defentsan. [Aiaraldea.eus](http://Aiaraldea.eus)

Testua  
**Aimar Gutierrez Bidarte**

Ezerezean geratzeko arriskuan dago Glavista lantegiaren etorkizuna bermatuko lukeen salerosketa prozesua. Duela aste batzuk baikortasuna zen nagusi; gaur gaurkoz, ordea, ziurgabetasuna.

Ekaina hasieran bideratzearen urtariletik hartzekodunen aurrelehiaketan zegoen Glavista enpresaren egoera Javier Garcia Marquez inbertsore getxoztarrak Laudio lantegia erosteko asmoa publiko egin ostean. Oztupo bakarria Iberdrolaren energia-hornidurarekin zeuden arazoak ziren, Glavistak pilatutako zorraren ondorioz etenda baitzeuden hauek. Behin hori konponduta lanean hastea besterik ez zen falta.

Hain zuzen ere, asteartean -uz-

## Langileek Laudioko fabrikaren etorkizuna behingoz negoziatzeko eta ebazteko eskatu diete alderdi guztiei

tailak 4- zuten beharginek enpresa martxan jartzeko lehenengo eguna, baina ez zen horrela izan. Guardian Europaren eta Garcia Marquez-en arteko desadostasunek, salerosketa prozesua eten egin dute. Zehazki fabrikaren lurren salmentak sortu ditu desadostasunak. "Batzen eta besteen jarrera urrunek eta prozesu honen eragile desberdinen bertsio kontrajarriek prozesu luze, agoniko eta tamalgarri honen amaiera aurreikustea eragiten dute, betikoen interesn kontra, Glavistako langileentzat", salatu du Enpresa Batzordeak zabaldu dutako oharrean.

Gauzak horrela, langileek Laudioko fabrikaren etorkizuna behingoz negoziatzeko eta ebazteko eskatu diete alderdi guztiei: "Helburua zailtzarrik gabe aktibitatea martxan jartzea eta enpleguari eustea izan behar da".

## Arrankudiaga-Zollo

# Usansoloko ospitalean pediatria eta erditze zerbitzuak jartzeko aldarrikapena zabaldu dute



Sinadura bilketa egin zuten San Joan gaua probestuz. [Aiaraldea.eus](http://Aiaraldea.eus)

Testua  
**Aitor Aspuru Saez**

San Joan gaua baliatu zuten Arrankudiaga-Zolloko zenbait gurasok aurten abiatutako sinadura bilketa bat zabaltzeko. Egitasmo horrekin exijitzen ari dira Usansoloko Ospitalean egingo dituzten obra handietan pediatria eta arrisku baxuko erditzeen zerbitzuak ere aintzat har ditzaten.

Aldarrikapen hori Arrankudiaga-Zollora zabaltzeko San Joan jaian mahaia jarri zuten sinadurak biltzeko eta geroztik Gizarte-Etxean ere sinatzeko aukera dago. Printzipioz, ekimena uda amaiera arte luzatuko dute eta euren asmoaren barruan ere bada go udalbatzan mozioa aurkeztea.

Gauzak horrela, beste talde bat atxikitu da kanpainara, Aiaraldean Lamuza Eskolako Guraso Elkarteak, Kili-kili Laudioko Hazkuntza Taldeak, Orozkoko Matxintxu Emakumeen Elkarteak eta Laudioko Mugimendu Feministak egin baitzuten aurretik.

### Arrazoiak

Sinatzaileek aldarrikatzen dute pediatria eta arrisku baxuko erditzeak "oinarriko zerbitzuak" direla eta horiek herritarren esku jartzea "osasun ekitatearen aldeko neurria" dela.

Izan ere, kexu dira eskualdeko

umeek larrialdi bat dutenean edo ospitaleratu behar dituztenean Gurutzetaraino jo behar dutelako eta etengabeko joan-etorriak egin behar dituztelako.

"Bestetik, gure eskualdeko emakume haurdunkezk dagokien eta ezezaguna zaien beste ESI batetako ospitalera joan behar izaten dute erditzera: Gurutzetako Ospitale erraldoira, kasu. Horren aurrean, emakume askok erabakitzen du ospitale txikiago batera joatea bertan eskaintzen zaizkien erditze eredu indibidualizatuagoen bila. Dena den, ospitale horiek beste eskualde batean daudenez, eskualde hartako pazienteek dute lehenetsia, eta gerta daiteke, erditze egunean lekurik ez bada, beste ospitale batera joan beharra", gaineratu dute.

Usansolon bertan pediatria eta erditze zerbitzuak izatea "haur eta emakumeen osasun arretaren aldeko neurri garrantzitsua" dela adierazi dute, "arreta indibidualagoa, hurbilagoa tratuz, ezagunagoa eta euskaldunagoa" ekarriko lukeelako.

Horrez gain, zerbitzu horien funtzioa azpimarratu dute: "Emakumeen osasunerako onuragarriagoa den eta emakumeok ahalduztzeko erditze-espazio eta erditze-eredu humanizatuagoa eta genero perspektibatik landuagoa behar eta nahi dugu".

**CLÍNICA DENTAL OROZKO**

**ABUZTUAN ZABALIK**

Interesik gabeko finantzaketa

- MINIKGABEKO LASERBIDEZKO HORTZ TRATAMENDUAK
- 3D DIAGNOSTIKOA
- AHO BARNEKO ESKANERRA (CAD-CAM)

Lehendakari Agirre enparantza 8 behea, OROZKO · 94 661 04 19

☎ 688 678 604 (Hitzorduak Whatsapp bidez ere ematen ditugu) [www.clinicadentalorozko.com](http://www.clinicadentalorozko.com)

# herriz herri

## Amurrio

### Tubos Reunidosek enplegua erregulatzeko aldi baterako espedientea abiatu nahi du

Testua  
Aitor Aspuru Saez

Pasa den astean sekulako mozkinak aitortu eta gero, aste honetan bertan oharra bidali dio Tubos Reunidos enpresako zuzendaritzak langile batzordeari, jakinarazteko enplegua erregulatzeko aldi baterako espediente jarri nahi duela indarrean. Berez, ekoizpen eta antola-

kuntza arrazoiak argudiatu ditu enpresak eta neurriak 848 langilerengan izango du eragina, bi aldeek kontrakoa adosten ez badute. Halaber, astebete barru bilera deitu du Tubos Reunidosek sindikatuarekin, dokumentazio guztia pasatu eta negoziatuzio prozesua abiatzeko. Enpresa batzordeko iturriek aipatu diote Aiaraldea Komunikabideari modu ez ofizialean heldu zaiela espediente airailean

hasiko litzatekela, hurrengo urteko otsailean amaitzeko. Iturri horiek azaldu diote komunikabideari dela zenbait hilabete zuzendaritzak aipatu zuela lortu berri diren emaitza onen sorburua iazko eskariak zirela, eta aurten ez dela eskari nahikorik jaso. Hala ere, neurriak ezustean harrapatu ditu sindikatuak, pasaden astean irabazi bikainen berri eman baitzuen konpainiak.

### EH Bilduk Amurrioko Tokiko Gobernu Batzordetik kanporatu dutela salatu du



Agerraldia egin zuten EH Bilduk Juan Urrutia plazan. Aiaraldea.eus

Testua  
Jones Gartzia Gerra

Amurrioko EH Bilduk agerraldia egin zuten astelehenean udaletxearen aurrean EAJk eta PSE-EEk azken Udal Osoko Bilkuran aurkeztutako udal-antolamendu proposamena salatzeke. Joan den ostiralean eman zuten bi alderdien arteko akordioaren eta ardura banaketaren berri. Bi talde politikoaren baturrekin, hamar zinegotzi izango dituzte eta, horrenbestez, gehiengo osoa. EH Bildu izango da oposizioko talde bakarra eta gaurko agerraldian Tokiko Gobernu Batzordetik kanporatu izana salatu zuten.

Izan ere, EH Bilduk udal hauteskundeetan 1.847 bozka jaso zituen eta horrekin zazpi zinegotzi lortu, hau da, udal ordezkariaren % 41. EH Bilduko zinegotzi diren Angela Ricok eta Mariano Alavak salatu zuten EAJren eta PSE-Eren arteko akordioak Tokiko Gobernu Batzordetik kanporatu dituela, haien artean banatu baituzte alkateari laguntzeko era-

tzen den organo honetako ki-deak: EAJko lau zinegotzik eta PSE-EEko bik osatuko dute datozen lau urteetan.

“Hori gutxi balitz, gobernu taldeko zinegotziek hileko dietengatik jasoko duten diru kopurua igo dute: 1.100 eurokoa izatetik 1.500 eurokoa izatera pasako da”, gaineratu zuten EH Bilduko zinegotziak. Zehaztu zuten susmoa dutela zehazki puntu horretan dagoela “bentako EAJren eta PSE-EEren arteko gobernagarritasunerako eta egonkortasunerako itunaren gako: euren ordezkariak, inolako dedikaziorik gabe, 1.500 euroko gutxieneko ordainsaria jaso dezatela”.

Udal-antolaketa proposamena “ezohikoa” dela azaldu dute Ricok eta Alavak, eta adierazi dute hartutako neurria soilik uler daitekeela “gero eta emaitza hobekak lortzen ari den ariario politiko baten kontrako nagusitasunetik eta errebantxa animotik”. Zinegotziak azpimarratu dutenez, erabakiak “guztiz markatuko du” hurrengo legegintzaldia.

**Aiaraldeko EMAKUME\* ERREFERENTEEN MAPA**

Zuretzat eskualdeko zein emakume\* izan da garrantzitsua? Zergatik?

**BETE FITXA ONLINE HEMEN:**  
[labur.eus/Aiaraldekoemakumeerreferenteak](http://labur.eus/Aiaraldekoemakumeerreferenteak)

araba álava foru aldundia diputación foral

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO



**babestutako edukia**

# Berriro EGINGO DUGU.



Kongresua



Senatua

Bi boto. Bi boto-paper. Bi gutun-azal. Indar bikoitza.

**ehbildu**

# zientzia

## Artropodo festa baratzean

*Artropodo: antzinako grezieraz, arthron "giltzadura" eta podos "hanka". Hanka giltzatuak eta hezurduratzat exoeskeletoa dituen animalia ornogabea.*



**AINHOA URKIJO LETONA**

Aiaraldeako txoko ugarietan udako aisialdiko aktibitate hedatuenean artean daukagu gaurkoa, osasuntsua, kirola egitekoa, naturaz gozatzekoa, bakarrik zein familian: baratze zaintza. Herriguneetatik apur bat urruntzea baino ez daukagu tomateak gorritzen eta indabak makiletan gora kiribilkatzen ikusteko. Baina landareez harata go, gure baratzeak bizitzaz beteriko ekosistema konplexuak dira, begiz ikusi ezin ditzakegun animalia, onddo, bakterio eta beste bizidun mota batzuez osatzen direnak, tamaina, forma eta kolore guztietakoak. Sarritan euren kontrako borrokan galtzen gara, gure landareak gaixotuko dituztelakoan, baina komunitate hau lagun izan dezakegu eta zenbait kasutan beharrezkoa ere, landareen osasuna bermatzeko. Horrela bada, baratzeen funtzionamendua bertoko kate trofikoak eratu duten izaera desberdineko bizidun guzti hauen menpe gertzen da.

Baina, zer da kate trofikoak? Organismoen sekuentzia lineala da, zeinetan energia eta nutrienteak organismo batek besteak jaten duenean transferitzen diren. Horrela, maila trofiko deritzen taldeak eratzen dira, antzeko elika-ohiturak dituzten espezieen artean, hain zuzen ere. Lehenengo mailan ekoizle primarioak ditugu, energia lortzen dutenak molekula inorganikoak konposatu organiko bihurtuz (gure baratzeetako landareak, adibidez). Ondoren, kontsumitzaile primarioak izango genituzke, ekoizle primarioez elikatzen direnak, alegia. Gero, kontsumitzaile sekundarioak (primarioez elikatzen direnak) eta horrela, mailaz maila.

Baratzeetako ekosistemetan aurki ditzakegun kontsumitzaile

le primarioen artean artropodo fitofagoak izango genituzke: landare-zorriak, tripsak, eulizuriak edota zenbait beldar eta akaro, adibidez. Antzinako grezieraz, "fito"- landare eta "fago"- jatearen ekintza, landareak jaten dituen da. Talde hau kaltegarria dela esan genezake, jakina denez, landarearen zenbait organo erasotu ditzakeelako energia eskuratzeko eta haziak edota fruituak ekoizteko ahalmenean negatiboki eragin dezake.

Hala ere, naturak badu fitofagoen aurkako sendagairik: artropodo predatzaileak eta parasitoideak, maila altuagotako kontsumitzaileak, hain zuzen ere. Lehenengo fitofagoak zuzenean jaten dituzte, bigarren fitofagoak

euren arrautzak erruteko eta larbak hazteko erabiltzen dituzten bitartean. Nolanahi ere, bi taldeek aurreko kontsumitzaile primarioen kontrol biologikoa burutu dezakete katea orekan mantenduz. Hemen aurki ditzakegun artropodoen artean daukagu marigoringoak, sirfidoak, tximitzak edota beste zenbait akaro eta liztor.

Errealitatean, haatik, ohikoa da landare espeziearen arabera, artropodo fitofago talde guzti batzuk neurri gabe haztea janaria soberan daukatelako. Horrela, izurriteak sortzen dira eta kate trofikoak desorekatu egiten da. Hauek kalte ekonomiko itzelak sor ditzakete uztaren oparotasuna kolokan jarriz, eta horrega-

tik, berebizikoa da hauen hazkuntza kontrola dezakeen predatzaile komunitate dibertso bat izatea gertu, izurritea hazi bezain laster zonalde kaltetuetara azkar iritsi daitekeena.

Hau guztia ikusita, orduan, zer egin dezakegu gure baratzeak orekan mantentzen saiatzeko? Orain arte adituen artean nolabaiteko eztabaida egon da. Alde batetik, badaude inguruko habitat naturalen kontserbazioaren alde egiten dutenak, predatzaileek kabiak eraikitzeke eta babesteko gune naturalak behar dituztelako, nahiz eta elikatzeke baratzeetara jo dezaket, eta habitat natural hauen kate trofikoak babesteko inguruko agroekosistemak orekatzen lagunduko lukee-

lako. Bestetik, habitat naturalek fitofago gehiago ekarriko lituzketenaren ustea dutenak ere badaude; izan ere, landare dibertsitatea emendatzeak artropodoen dibertsitatea handitzea ekarriko bailuke, animalia "faboragarriak" zein "kaltegarriak" izan. Horrez gain, badaude paisaiari arretarik jartzen ez diotenak eta baratzean bertan predatzaileentzat bereziki erakargarriak diren loreak tartekatzen saiatzen direnak. Beraz, ezingo genioke kontu honi erantzun borobil bat eman, oraindik bidea dago kate trofikoaren dinamikak eta euren ingurunearekin duten erlazioa ondo ulertzeko. Halere, bitartean segi dezagun gure baratzeek gozatzen eta bertan esperimentatzen!



## babestutako edukia

[Zeure lurraldean.  
Zeure mapan.]

kutxabank  
HE  
MEN  
DIK 

KUTXABANKEK  
BBK, KUTXA ETA VITAL  
FUNDAZIO AKZIODUNEI  
1.246 MILIOI EUROKO  
DIBIDENDUA EMAN DIE,  
ZEINEKIN EUSKADIN  
EKONOMIA- ETA  
GIZARTE-GARAPENERAKO  
EKINTZAK EGITEN  
DITUZTEN.



# kultura

**“Hiperrealismoa ez zait gustatzen; nabaritu behar da margolan bat dela?”**



**IÑIGO BARRON**ek ERAKUSKETA INAUGURATU BERRI DU ORDUÑA MUSEOAN. 2020 ETA 2023 URTEEN ARTEAN EGINDAKO ZUHAITZEN ETA BESTELAKO NATUR-ELEMENTUEN OLIO MARGOLANAK BILDU DITU BERTAN.



Testua eta argazkiak  
**Aimar Gutierrez Bidarte**

**Zer da Orduña Museoan inauguratu berri duzun erakusketan ikus daitekeena?**

2020 eta 2023 urteen artean egindako artelanen lagin txiki bat bildu dut Orduña Museoko erakusketan. Oso gai zehatza landu dut: zuhaitzak eta natura. Paisaiak bildu ditut nagusiki, eta badaude ere animalien eszenak dituzten artelanak. Baina, nagusiki, zuhaitzen margolanak dira gehienak, eurak dira irudien protagonistak. Zuhaitzen erretratuak egiten ditudala esaten dut maiz.

Arreta deitzen didate zuhaitzen forma okertuek, eta saiatu naiz margolanetan hori islatzen.

Iaz Orozkon jarri nuen erakusketa berdina, baina honetarako 12 koadro berri ekarri ditut.

**2020 eta 2023 urteen artean egindako obrak direla aipatu duzu. Pandemiak badu nolabaiteko eraginik horretan?**

Pandemia aurretik hasi nintzen proiektuan pentsatzen, 2020ko urte hasieran. Pandemiak harrapatu gintuenerako hasiak nituen margolan batzuk, baina, pandemiaren ondorioz gehiago murgildu nintzen proiektuan.

Gure udalerrri ingurutik mugitzea soilik posible zen garaia probestu nuen inguruko mendietatik are gehia-

go ibiltzeko. Ni Arakaldon bizi naiz, eta Gorbeia inguru etxetik nahiko gertu daukat. Hiru urte eman ditut basoetatik irudi bila.

**Nolakoa da margolanen sorkuntza prozesua?**

Estudio batean egiten dut lan. Menditik paseatzen noiala argazkiak egiten ditut eta hori baliatzen dut margo-

**“Margotzea musika jotzea bezalakoa da, konposatzen ikasi behar da aurrena”**

lanak egiterakoan erreferentzia gisa. Koaderno batzuk ere eramaten ditut beti soinean, eta ikusten dudaren bozetoak egiten ditut arkatx eta akuarelekin. Eseri eta ikusten dudana marrazten dut azkar batean. Koaderno horietan jasotzen dudana gida bezala baliatzen dut gero olioarekin konposatzerako orduan.

Urduñako Museoko erakusketara ekarriko ditut koaderno horiek, bitrina batean koadroekin batera jartzeko.

**Nola definituko zenuke zure estiloa? Zeintzuk dira honen ezaugarri nagusiak?**

Argi eta garbi estilo errealista da nirea. Pintzelkada arina gustatzen zait. Nabari dadila pintura dela; maza-koterik utzi gabe, baina nabari dadila.

Hiperrealismoa eta margolanak argazki bilakatzea ez zait gustatzen. Nabaritu behar da margolan bat dela; tonua igoz eta pintzelkada arinduz. Teknikoki trementina eta lino olio erabiltzen ditut pintzeletan.

Behin margotuta, margolana amaitzerakoan lehortu eta berniz bat ematen diet lan guztiei, distirak sortzeko.

**Zer erabiltzen duzu margolanen oinarri gisa?**

Urduñako erakusketan bildu ditudan margolan gehienak ohol edo egurrezko xafren gainean egindakoak dira. Mihiseak tamaina handiagoko koadroentzako erabiltzen ditut.

**Ibilbidea egin duzu pinturaren munduan?**


Urte asko daramazkit margotzen, bai. Gaztetan hasi nintzen marrazkiak egiten, asko marrazten nuen. Gerora, Gasteizko Arte Aplikatuaren Eskolan ikasi nuen. Asko ikasi nuen bertan. Margotzea musika jotzea bezalakoa da, konposatzen ikasi behar da aurrena. Gitarrak oinarritzko akordeak dituen bezala, pinturak ere badu bere oinarria.

Abstrakziora edo beste edozein estilora jo dezakezu gero; baina aurretik marrazketa oinarri bat izatea ezinbestekoa dela uste dut. Nik neuk ere abstrakzioa egin dut.

Erretratuak ere asko landu ditut, batez ere enkarguz eginak. Lan asko egin ditut horrela: bodegoiak, familiaren baten baserri baten margolana...

**Aurrera begira baduzu proiekturik esku artean?**

Natur-gaiak lantzen jarraitu nahi dut. Asko gustatzen zait eta lurratu egiten nau. Badut mihise handiagoak prestatzeko asmoa ere. Argia gehiago lantzea da nire asmoa. Efektu atmosferikoak margotu nahi ditut: ekaitzak, egunsentiak... Beti dut proiekturen bat esku artean. Nire burua uneoro behartzen dut etengabe marrazten egotera.



KOMUNIKA

FAKTORIA

**INTERPRETATIO ZERBITZUAK**

Zalantzan zaude zure ekitaldia euskaraz ala gaztelaniaz antolatu? Egizu euskaraz, eta guk aldebereko itzulpena egingo dugu aztelaniaz!

Tokikoak, gertukoak eta eskarmentu handikoak.

Elkartentzat eskaintza bereziak!



[www.komunika.eus](http://www.komunika.eus)

[jonegarcia@aiaraldea.eus](mailto:jonegarcia@aiaraldea.eus) · 722 22 75 42 · FAKTORIAN, Errotari kalea, 4-8 LAUDIO

[@komunika.eus](https://www.instagram.com/komunika.eus)

# kultura

## ‘Una vida no tan simple’ filma, Einar Palacios Elejalde amurriotar gaztearen lehen lana



Einar Palacios Doña Casilda parkean izandako errodañean. **Palacios-Elejalde**

Testua  
**Aitor Aspuru Saez**

Ekainaren 23an heldu zen pantaila handira *Una vida no tan simple* filma eta igandean eta astelehenean ikusgai egon zen Amurrio Antzokian. Horren arrazoia izan zen Einar Palacios Elejalde amurriotarrak debuta egin duela Miki Esparbe antzezlearekin duen pertsonaiaren semearen papera eginez.

Einarrek hiru urte zituen filma grabatu zuenean eta bost bertekeko ditu estreinaldiaren egunean. Bere gurasoek ume alai eta irekitzat jotzen dute eta horregatik Bilbon pelikula bat grabatuko zutela ikusi zutenean, proposatu zioten bideo bat grabatu eta bidaltzea.

Einarrek baiezkoa eman zuen eta 16 segundoko klipa bidali zuten. Handik gutxira, hamabost minutuko proba egiteko deitu zuten eta gainditu egin zuen. Bi aste geroago, Felix Viscarret zuzendariarekin egin zuen ordubeteko beste proba bat eta bi astera adierazi zieten hautatua izan zela, betiere azken oztipoa gailentzen bazuen.

Zehazki, bere arreba nagusiaren papera egin behar zuen aktorearekin (Izel Prieto) elkartu zuten eta berehala moldatu ziren.

### Grabaketa

Behin iragazki guztiak igaro-

ta, 2021eko azaroaren eta abenduaren bitartean ekin zion Einarrek filma grabatzeari. Bere eginkizuna izan zen protagonisten —Miki Esparbe eta Olaia Calderaren antzezleek egin zituzten rolak— semearen papera egitea eta hain gaztea izanik, ez zuten esaldirik buruz ikasteko beharrik izan. "Horregatik batzutan iruzkinak egiten zituen edo galderak egiten zituen grabaketaren erdian. Eten behar zuten, baina barre egiten zuten", gogoratu du Aitziber Elejaldek, bere amak.

Dena den, amak berak argitu du ez zuela askotan hitza hartu grabaketan eta pasarte batzuetan lotan agertzen dela.

### Filmate zaila

Halaber, senideek gogoratu dute grabaketa ez zela erraza izan, COVID-19 birusaren kontrako oso protokolo zorrotza baitzegoen. Hori dela eta, eskolara joateari utzi zion, arriskuak murrizteko eta grabaketa osoa ez geldiarazteko.

Naiara Carmona filmaren aholkulariak joko bat izango balitz bezala aurkeztu zien grabaketa umeei, baina, hala ere, Einarri maiz aspergarria iruditzen zitzaion lana, bereziki, errepikatu behar zutenean.

Edonola ere, bere gurasoek azpimarratu dute oso ondo zainduta egon zela beti eta esperientzia polita izan zela.

## ‘Una ballena’ pelikularen grabaketa amaitu dute, besteak beste, Okondoko etxe batean filmatutakoa

Testua  
**Aitor Aspuru Saez**

Una ballena Okondon grabatutako pelikularen filmazioa amaitu da. Izan ere, maiatzaren hasieran ekin zioten lanari eta sei astez luzatu behar zen.

Film horretan Ingrid Garcia-Jonsson eta Ramon Barea izan dira antzezle ezagunenak eta Aiaraldea Komunikabideak berretsi du, gutxienez, aktore bilbotarrak parte hartu zuela Okondoko grabaketan. Zehazki, lan hori Arenal 16 eta Villachica 1 helbideen artean

dagoen etxebizitza batean egin zuten. Gauez eta egunez aritu ziren bertan eta auzokideek aipatu diote hedabideari kamioiak baliatu zituztela talde guztia zein azpiegiturak eramateko. Horrez gain, etxebizitzarekin harremana duen lagun batek ziurtatu dio komunikabideari Ramon Barea parte hartu zuela filmazioan. Okondoko Udalak laguntza eskaini bazuen ere, erakundeak ezer gutxi jakin izan du pelikulari buruz, ekoizpen arduradunekin aritu baita elkarlanean. Okondon ez ezik, Bilbon eta Bizkaiko zenbait tokitan ere jar-

dun da *Una ballenako* taldea. Istorioren Ingrid Garcia Jonsson hiltzaile profesional baten azalean jartzen da eta bere arrakastaren sekretua fantasiazko mundu bati dago lotuta. Ramon Barea pertsonaia, ordea, enpresari boteretsua da, zeina etxe-gotorleku batean bizi den. Jonssonek filman izango duen eginkizuna hura akabatzea izango da. Zuzendaria Pablo Hernandez gasteiztarra da. 2015ean Ber-serker pelikula egin zuen. Proiektu horretan zinema beltza landu zuen eta honetan, aldiz, thrillerra jorratu du.

SORMEN BEKAK | SORMEN EGONALDIAK

# Arte ARNASA.

Aurkeztu zure proiektua  
kultura@aiaraldea.eus

Epea  
uztailak 12

Oinarriak eta info +  
kulturfaktoria.eus/bekak

1.000€  
udan sormenari  
denbora  
dedikatzeko

Oxigeno bonbona bat, zure proiektu kreatiborako



info +



KULTUR  
FAKTORIA

Vital  
FUNDACION FUNDACION

ERREKOR  
GOBIERNO VASCO

Ezohiko bilakaera izan du Andere Dantza Taldeak eta doako klase irekiak eman dituzte astero, 25 urteko ibilbidean zehar. Ez dute ia emanaldi helburu bakarrarekin: dantza plaza bat egiten publikorik eskaini, ez dute diru-laguntzarik jasotzen denean ahalik eta jende gehien batzea.

# Andere, 25 urte korrontearen kontra dantzan



Goiko argazkian, Laudioko aurrekuaren berreskurapenerako egintza saioetako bat. Behean, taldeko kideen hainbat argazki. **Andere Dantza Taldea**



Testua **Txabi Alvarado Bañares**

Andere Dantza Taldea ez zaio, segur aski, jende askorik ezaguna egingo. Esku batekin zenbatu daitezke talde horrek bere 25 urteko ibilbidean zehar egin dituen emanaldi publikoak, baina horrek ez du esan nahi geldirik egon denik. Etenik gabeko jarduna izan du 1997tik hona, ostiralero antolatzen dituen dantza klase irekien bidez. Oraingo kideek ez dakite zenbat jende igaro den taldetik, ez baitute kontaketa eramaten, baina 110 inguru izango direla kalkulatu dute, jende nagusi zein gazte. Gaur egun 19 kide daude. Batzuk joan ziren, beste batzuk itzuli dira. Batzuk urteak darमतate asteroko zitari huts egin gabe. Beste batzuk, aldiz, noiz-

behinka bertaratzen dira, ahal edo nahi dutenean. Izan ere, klaseak “erabat irekiak eta doakoak” dira. Nahi duen oro bertaratu daitezke, nahi edo ahal duenean. “Nik hasieratik esan nuen: nahi duena etorri dadila. Inoiz ez dut zerrendarik eraman ez ezer. Jente batek galdetzen zidan zenbat kobratzen nuen, eta nik ‘ezer ez’ erantzuten nien. Batzuk ez dira taldean sartu horregatik, agian pentsatzen zutelako kobratzen ez zenez ez zuela balorerik”. Idoia Urquijo Orueta-ren hitzak dira horiek. Bera dago taldearen sorreraren atzean, eta bera arduratzen da ostiralero klaseak dinamizatzeko.

1997ko Laudioko jaietan bota zioten harria, Odoloste Egunean: “Manu Crespok, Haziakoko txistularia izandakoak, esan zidan ea animatuko nintzatekeen Laudio

Ikastolako guraso talde bati jota irakastera. Nik baietz esan nion, baldin eta Udalak horretarako toki bat lagatzen bazidan”.

Esan eta egin. Laudioko Kultur Etxean aritu da taldea ordutik hona. Orain, eraikin hori obretan dagoenez, Jubilatuen Kluba zegoen tokian biltzen dira ostiralero, 19:00etatik 20:00etara. Nahi duen oro bertaratu daitezke jota, arin-arina edo plaza-dantza ikastera. “Ez dugu adin ezta sexu mugarik”, nabarmendu du Urquijok, “edonor etorri daitezke inolako konpromiso gabe”.

## Dantzaren osteko “terapia”

Hala ere, dantza klaseetaz gain, Andere Dantza Taldekoek bestelako ekimen batzuetan ere parte hartu zuten. Aktiboki lan egin zuten Laudioko antzinako aures-

kua berreskuratzeko prozesuan, eta emanaldi batzuetan ere aritu dira oholta gainean dantzan.

Baina hori ez da inoiz izan taldearen lehentasuna. Diru-laguntzarik ere, ez dute inoiz jaso, ezta nahi izan ere. “Ez dugu urtean emanaldi kopuru bat egitera derrigortuta egon nahi. Dirurik ematen ez digutenez, ez dugu ezer zor”, azaldu du Urquijok. Berak bazuen aurretik esperientzia dantza talde hadiangoetan eta argi zuten ez zuela Andere horretan bilakatu nahi. “Lan, arduraren eta konpromiso handia eskatzen du horrek, eta presio handia eragiten du dantzariengan”. Bere hitzetan, bestelako helburua du Andere dantza taldeak: “Plazaren erdian jota bat edo dantza-plaza bat badago jendeak jakitea hori dantzatzeko, eta horretaz goza-

tzea”. Horretara bideratuak daude ostiraleko klaseak. Oso mekanika sinplea dute: bertaratu eta dantza egitea. “Jauziak egiten ditugu lehenbizi, berotan sartzeko, eta gero denetarik apur bat”. Jota eta porrua ikasten hasi zirenean, baina berehala ekin zioten bestelako dantza-jolasak txertatzeari, bestela “oso etsigarria” suertatu zitekeelako. “Ondo pasatzea da helburua”, Urquijoren hitzetan. Eta klaseak bezain garrantzitsuak dira klaseen ostean inguruko tabernaren batean izaten dituzten elkarrizketa luzeak ere, dantza taldeko kideek “terapia” moduan ezagutzen dituztenak. Izan ere, dantza talde bat izateaz gain, lagun talde bat ere bilakatu da Andere, 25 urteko bidea egin duen eta 100 kide baino gehiago biltzera iritsi den familia.

# kultura



“Esango nuke euskal identitatea krisian dagoela, zentzu onean”

**AMAIA YANIZ BASTERRETxea** LAUDION BIZI ZELA ZALETU ZEN MUSIKA ELEKTRONIKORA. BILBON BIZI DA ORAIN, ETA BERTAKO ESZENAN MURGILDUTA DAGO. DUELA URTEBETE EKIN ZION MUSIKA *PINTXATZEARI*.



Testua eta argazkiak  
**Txabi Alvarado Bñares**

**Duela zenbait urte elkarrizketa bat egin genizun Aiaraldea Komunikabidean, argazkilari moduan. Oraingoan, aldiz, musikaren alorrean egiten duzun jarduna izango dugu hizpide gehienbat. Nola eman duzu esparru batetik besterako saltoa?**

Musikan beti egon naiz, baina entzule moduan. Ni ez naiz mundu honetan duela gutxi sartu. Jagoba Gonzalez eta Mikel Morenorekin batera sartu nintzen mundu honetan. Jagobaren aitaren (Julio Gonzalez DJ audioar beteranora) eraginez hasi ginen 16 urterekin elektronika entzuten. Beti izan naiz musikaren oso frikia, eletronikarena eta baita gitarrena ere, azken alde hori orain apur bat ahaztuta dudan arren. Gogoratzen dut garai horretan Jagobaren aitak erakutsi ziola Mikel Morenori *pintxatzen*. Nik ere banuen horretarako gogoia, baina ez nintzen inoiz hasi. Bilbora bizitzera joan nintzenezan erakutsi zidaten lagunek.

***Pintxatu* egiten duzula diozu. Hau da, ez duzu musika ekoizten.**

Ez, ez dut ekoizten, eta ez dut ekoizteko interesik.

**Ez zaizu musika ekoiztea musika *pintxatzea* baino sortzaileagoa iruditzen?**

Asko gustatzen zait galdera hau. Dja izatea ez da kantak ipintzea, arte bat da. Sesio bat egiteak zentzu bat izan behar du, istorio bat kontatzea bezalakoa da. Nahiko tipikoa da hori esatea, baina linealitate bat izan behar du. Nahasketa gustatzen zait niri. Nire egiteko modua ez da kanta bat bestearen atzetik jartzea. Ditudan *track*-ak luzeak dira normalean, eta 4-5 minutuko nahasketak egiten ditut. Hori interesatzen zait. Horregatik dio ez zaidala ekoizpena interesatzen, DJaren lanaren oso defendatzailea naiz. Gainera, azkenaldia sekulako eztanda egon da, mundu guztiak *pintxatzen* du orain. Hiru urte barru geratuko gara benetan interesa dugunok. Baina orain, jende orok *pintxatzen* duenez, *pintxatzea* edozer gauza izan daiteke. Eta ez nago horrekin ados. Uste dut lan garrantzitsu eta serio bat dela.

**Entzuten duzun musika *pintxatzen* duzu edo sesioetarako berariaz hautatutako kantak dituzu?**

Entzuten dudana musika *pintxatzen* dut. Horretan ere oso leiala naiz nire buruarekiko. Niri gehien gustatzen zaidan musika dantzarako elektronika da: tekno, trance, house... azpi-genero guztiak. Badago diskurtso bat dioena dantza-

rako elektronika jairako musika dela, alde batetik musika eta bestetik dantzarako elektronika egongo balira bezala. Horri lotuta, nik askotan esan dut dantzarako elektronika gustatzen zaidala, baina beste gauza batzuk ere entzuten ditudala. Baina, duela hiru urte inguru pentsatu nuen: “Zer ostia, hau da eta gehien gustatzen zaidala. Dantzarako elektronika da gogokoen dudana, gehien gozatzen dudana, negarrez jartzen nauena eta ASMRak sorrarazten dizkidana”. Orduz geroztik, dantzarako elektronikaren defendatzaile sutsua naiz. Egia da azken urteetan eztanda handia egon dela, mundu orok ekoizten duela eta mila zaborrekin topo egiten duzula. Gauza on bat topatzeko 100 txar entzun behar dituzu. Bueno, ona eta txarra zer den ere definitu beharko genuke... betiko kontua da hori.

Galderara itzuliz: bai, *pintxatzen* dudana musika bada etxean entzuten dudana, gustatzen zaidana, gozatzen dudana. Asko arakatzeko joera dut. YouTube da nire lan-erreminta. Bertan sartu eta orduak igarotzen ditut musika bilatzen.

**Bilakaera handia eman da musika elektronikokoan azken urteetan. Imajinatzen dut zuk ere bilakaera bat izan duzula edo saiatu zarela zure estiloa bilatzen.**



Askotan diot asko pozten naizela horren berandu hasi izanaz *pintxatzen*. Asko. Izan ere, orain dudana *background*-a ez du jende askok, edo badu honetan urteak daramatzen jendeak. Gogoratzen dut behin lagun batek esan zidala *pintxatzen* ikasi nahi zuela, eta behin esan nion gogoak nituela jakiteko zer musika mota eskainiko zuen. “Hori da nire arazoa Amaia, ez dakidala”, erantzun zidan. Orduan pentsatu nuen: “eske egia da: badago jende bat denbora gehiago daramana *pintxatzen* musika entzuten baino”. Ni *pintxatzen* hasi nintzanean lagunek esan zidaten jada banuela soinu definitu bat, ez nintzela nire soinua bilatzen aritu behar izan. *Pintxatzen* duela 10 urte hasi izan banintz, teknoa soilik *pintxatuko* nuke, ‘tekno’ hitzaren zentzu herstian. Gaur egun, aldiz, askoz gauza gehiago nahasten ditut.

DJ moduan ezin dut bilakaera bati buruz hitz egin, uste dudalako denbora gutxi daramadala horretan...

**Laudion igaro duzu zure gaztaroaren zati handi bat, baina gero Bilbora joan zinen bizitzera, eta bertako eszenarekin egin zenuen topo. Laudioko beste sortzaile batzuk (Mikel Moreno kasu) ere bertan daude. Zer nolako bilakaera izan du eszena horrek? Nola azaldu zenioke zertan dantza horri buruz ezer ez dakien pertsona bati?**

Nik Laudiotik Bilbora joan nintzanean pentsatzen nuen Euskal Herrian ez zegoela ezer, baina badago. Beste kontu bat da txikia izatea eta, hain *underground*-a denez, ez da ezaguna publiko zabalarentzat. Zuk hemengo edozeini esan ahal diozu badagoela kalitate handiko eszena elektronikoa Bilbon, Iruñean eta Euskal Herrian, eta erantzungo dizu Berlinera joateko. Askotan diot: sekulako nagia ematen dit teknoa entzutera Bartzelona, Madril edo Berlinera doan jendea. Zoaz pikutara! Egon hemen eta egizu zerbait hemen, guk egiten ez badugu ez baitu inork egingo.

**Eta zer egoeratan dago Bilboko eszena? Nolakoa da?**

Leioan Arte Ederrak ikasten dituen jendeak eragin handia du Bilboko eszenan. Ez diot bakarrak direnik, baina badituzte azpirazioak. Arte Ederretan sartzen den pertsona bat, gaur egun, zerbait egin nahi duen pertsona bat da, dena delakoa, eta gauzak bilatzen ditu. Belaunaldi aldaketa ere sumatzen da. 2002. urtean jaiotakoak sekulako gogokekin datoz. Ez dakit zein den pandemiak izan duen eragina horretan. Uste dut Internetek ere zerikusi handia duela. Jendeak ikusten du edozein pertsonak edozein gauza egin dezakeela Internet bidez eta, horregatik, eurek ez dute guk izan dugun etsipen ideia hori. Oso indartsu datoz.

**Belaunaldi aldaketa nabaria ikusten duzu, beraz?**

Bai, ikusten dut, baina ez dut uste belaunaldiek elkarren artean talka egiten dutenik, guztiz kontrakoa baizik. Izatez, lagun asko ditut 20 urtekoak, eta orokorrean nahiko nahastuta ibiltzen gara denok. Bilbon gutxienez, badago 2000. urteko jendea, gero dago 1996-1997 urteetako eta gero gaude gu, 1991-1993 urteen artekoak, baina denak ibiltzen gara elkarrekin. Bi pertsona mota daude munduan: Arte Ederretako jendea eta euren lagunak (barreak). Badago jende bat ez dena karrera horretako baina badela, oro har, jende sortzailea.

Eszena elektronikoa ez da itxia zentzu estilistikoan. Oso aberatsa da. Iruñean horretan zerikusi handia dauka Chill Mafia taldeak, eta horrek mugitzen duen guztia. Elektronika kontzertuetara goazen berdinak goaz gero gitarren kontzertu batera edo beste edozertara. Bilbon, adibidez, Soinu Basatiak kolektiboa sortu zen duela urtebete. Punk *underground* kontzertuak antolatzen hasi ziren, eta orain DJ *set*-ak ere egiten dituzte. Bateriaezinak diruditen bi mundu horiek elkarrekin daude Bilbon, Donostin edo Iruñean.

**Kanpotik ikusita, badirudi pandemiarekin batera etorri zela euskal eszenara estilo aldaketa bat. Badirudi elektronika orain hasi dela nagusitzen euskal eszenan, baina elektronikak ere urte asko daramatza Euskal Herrian. Nola ikusten duzu zuk?**

**“Sekulako nagia ematen dit teknoa entzutera Bartzelona, Madril edo Berlinera doan jendea”**

**“Last Tourrek hanka bat sartu du underground munduan, baina horretan sinetsi gabe”**

Alde batetik, zer da euskal musika? Esango nuke euskal identitatea krisian dagoela, zentzu onean. Bilbora iritsi baino lehen, pentsatzen nuen elektronika eta nire euskaldun izateko modua ez zirela bateragarriak. Ezin nintzen teknoaren fanatikoa eta euskalduna izan. Baina, Bilbora iristean, konturatu nintzen oso erratuta nengoela.

Aldaketa bat eman da. Aspaldidanik dator, baina orain zabaltzen ari da publiko orokorrera. Lehen barrutik soilik ikusten zen eta orain kanpotik ere hasi da antzematen.

**Last Tourrek antolatutako Hirian jaialdian *pintxatuko* duzu datorren larunbatean (elkarrizketa hau ekainaren hasieran egin zen). Zer puntutara arte da bateragarria horrelako ekimen batean egotea aipatzen duzun eszena undergroundekin?**

Tira-bira handiak egon dira horrekin, bai. Ni oso erradikala naiz zentzu askotan, baina banaiz moderatua ere, sistemak dituen arrakalak baliatzerako orduan. Egia da Last Tourren azkeneko urteetan pare bat pertsona sartu direla eszena undergroundetik eta lortu dutela, hein batean, prekaritatean zeuden gauzei irteera bat ematea. Baina, orain, lehen kontrolpean zegoela zirudiena jada ez dago kontrolpean. Orduan, zer? Last Tour, BBK, Hirian jaialdia... *pintxatu* nahi dut toki horietan edo ez? Zalantzak ditut. Ez dakit nire izena ikusi nahi dudana itzulpen penagarriak egiten dituen eta tokiko artista zaintzen ez duen enpresa batean.

Baina, beste alde batetik, pentsatzen dut: Hirian jaialdian egongo da jende mordoa zu ikusiko zaituena kasualitatez. Ondo ordainduko didate, gauzak diren moduan: 50 euro emango balidakete ez nintzakete joango, argi daukat. Eta

horrek aukera ematen dit niri etekina ateratzeko nire esparrura eramateko. *Afterparty* bat antolatuko dut larunbatean, ez duena zerikusirik Hirianekin ezta Last Tourrekin, nire poltsikotik jartzen dut dirua. Baina 'Hirianen *afterra*' bezala salduko dugu (ez modu ezplizituan, noski), eta izango da hori egiten dugun hirugarren urtea. Ez da Hirinen *afterra*, ez duelako ekimen horrekin zerikusirik, baina badago pentsatua jaialdi horren osteko *afterra* izateko.

Gerra dago, bai. Uste dut Last Tour bera kolokan jartzen hasi dela enpresa moduan. Hanka bat sartu du *undergroundean*, baina *undergroundean* sinetsi gabe.

**Imajinatzen dut dilema horretan datzala: nola baliatu 'sistemaren' arrakalak, 'sistemaren' parte bilakatu gabe.**

Bai, argi dago. Nola neurtu? Ez dago erantzunik, eta eman dezakezun erantzun oro zure iritzi pertsonala izango da, bakoitzak bere egoera pertsonaletik ikusten duelako. Zikin taldeari, adibidez, Hirianen jotzeko esan zioten eta ezetz esan zuten. Nik zergatik esan dut baietz? Baldintza onak bermatu ditudalako, ez iaz bezala. Iaz BBK Live akanpalekuan *pintxatu* nuen, eta baldintzak penagarriak izan ziren.

Gainera, Miravallesek ere *pintxatuko* zuen, nire oso laguna dena, eta pentsatu nuen: zergatik ez? Ondo dago Hirianen egun batean *pintxatzea*, baina ez dut Last Tourrek ni eramatea nahi. Momentuz libre noa, baina uneren batean agentzia bat izango banu argi du ez dela Last Tour izango. Argi dut bazterrean mantendu nahi dudala. Balio du duzun balioa erakusteko: bai, zure ekitaldian *pintxatuko* dut, baina ez zaitut ni zapaltzen utziko.

Gai konplikatu da. Badago jende oso itxia eta uko egiten diona horrelakoetan egoteari, eta oso errespetagarria da. Baina niri gehiago interesatzen zait eurretaz apur bat aprobetxatu ahal izatea, eurak nitaz aprobetxatu gabe. Ondo ordaintzen didate, nire izena agertuko da hor, ezagutzen ez nauen jendeak ikusiko nau eta baliteke horren ondorioz nire ekitaldi batera joatea gero.

**Sortzaile askorentzat bide logiko bat izango litzateke Hirian jaialdira joatea eta gero hortik sortu daitezkeen beste aukeren bidez bide bat jorratzea, baina zuk jada aipatzen duzu ez duzula hori egingo. Zein bide jorratuko duzu, beraz?**

Ez dut honetara dedikatu nahi. *Pintxatzen* hasi nintzanean berehala hartu nuen erraztasuna, eta bat-batean konturatu nintzen hau izan dela nire bizitza osoan zehar egin ditudan gauzetatik gehien gustatzen zaidana. Bizi-poza ematen dit.

Horregatik, oso argi du ez dudala pilo bat ustiatu nahi. Ez dut hilabete bateko bira bat izan nahi eta asteburu emanaldi bat eskaini. Ez dut nire ekitaldietan soilik *pintxatu* nahi ezta, baina nahi dudana egin nahi dut.

Honetaz bizitzea ere sano zaila da. Musikari gutxi bizi dira musikatik. Ez dut planik, egia esan. Jimmy Jazzen behin *pintxatu* nuen eta asko gustatu zitzaidan. Errepikatzea gustatuko litzaidake. Nahiko nuke baita Bartzelonara edo Galiziarra joan, lagunak ditudalako bertan. Estatuan badago eszena, eta denok ezagutzen dugu elkar. Ezagutzera eman nahi dut nire burua, baina inolako aspiraziorik gabe. Ez dut interes berezirik nire izena jaialdi handien karteletan ikusteko, gehiago gustuko dut txikia dena.

**Eta musikaren aldetik?**

Behin esan nion Miravallesei kezkatua nengoela urtebete neramalako musika *pintxatzen* eta beti gauza bera egiten nuelako. Beldur naiz hamar urte pasa eta eboluziorik ez izateaz. Baina berak esan zidan ez kezkatzeko, hori bere kabuz datorrela. Horregatik, horretan ere ez dut aspirazio berezirik. Noski dituzula krisiak. Nik *pintxatzen* ditudan gauza gehienak zaharrak dira, eta badut ezer berria eskaintzen ez dudaren sentsazioa. Ez dakit galdera horri erantzuten. Zein da nire plana? Planik ez izatea (barreak).

**Elkarrizketa osoa Aiaraldea.eus atarian irakurri daitete.**

# kirola



## Victor Urquijo Mendiguren, futbol bikaineko bi hamarkada

CD Villosa eta SD Llodioko kirolaria 1960. hamarkadan iritsi zen bere ibilbidearen gailurrera, Athletic Clubekin 3 denboraldi igarota Lehen Mailan.



Testua  
**Joxean Urkixo**

Victor Laudion jaio zen 1938ko abuztuaren 16an, San Roque zaindariari eskainitako egunean. Haurtzarora, beste hainbat haurrekin batera, eskola ostean kalean abarketak txikitzen eman zuten, baloi baten atzean korrika eta kolpeka; ez zegoen besterik.

Altzarratera iritsi zenean, Llodiko gerraosteko kirolaren tenplura, baloiarekin modu antolatuan jolastea zein interesgarria izan zitekeen ikusi zuen. Gainera, lagunei geltokiko plazan jolastea gustatzen zitzaenez, oinezkoek arretaz jarraitzen zuten euren bilakaera; batzuk kirol hura ondo ezagutzen zuten eta eskarmentu handia zuten.

Victor serioa, formala eta barnerakoia zen nerabezaroan, eta dotore dominatzen zuen pilota. 1954an Villosa CDko gazteen taldeko kide zen eta tarte gutxian Hirugarren Mailako taldean sartu zen, 1957an Alavesek Gasteizen fitxa profesional bat eskaini zion arte. Gustura onartu zuen, Gasteizerako bidaiak gogaikarriak egiten bazitzaizkion ere.

Hilabete gutxiren buruan, 19 urte besterik ez zituela, Bigarren Mailan tokia izango zuela jabetu zen, eta, ahalegin eta dedikazio handiarekin, futboleantorkizun profesional ona lorzakeela pentsatu zuen. Ez zuen soilik berak pentsatzen, 1957 eta 1959. urteen artean Baskonia Kirol Klubean

eta SD Indautxun egindako erakustaldiak ikusi zituzten zale eta teknikariek ere berdin uste zuten. Horrek Athletic Clubeko lehen taldeko jokalaririk bihurtzera eraman zuten, euskal futbolari guztiek beti nahi izan duten ametsa egia bihurtuz.

Athleticera iritsi aurretik, Victorrek 26 partida ofizial jokatu zituen 2. mailan 8 golekin, eta jokalaririk handiekin partekatu zuen aldagela, baita Llodiko lagunekin ere: Juan Mari Ibarretxe, Joaquín Anton, Felix Zubiaga eta Luis Mari Otiñano. Hauek ere euskal zaleak liluratzen zituzten; bost izar 7500 biztanleko herri batean!! 50eko eta 60ko hamarkadetan, batez ere oporretan, haurrok eguna kalean ematen genuen, eta gure irudimenaren zati handi bat baloi bati eskaintzen genion: barruan harriak zituen poto bat, txapak, kanikak, iturriak, peoiak, uztaiak, iltzeak eta sokak; baina audioarrok, nik haien artean, plus berezi bat izan genuen, zerbait desberdinaz gozatzeko zortea: objektuak ez ziren erreferenteak, nori erreparatu izan genuen. Hala, koak ziren gu baino zaharragoak ziren futbolari hauek, mutil xumeak, eta haiekin hitz egin genezakeen zer egiten zuten galdetzeko eta, horrela, kontatzen zigutena egia ote zen egiaztatzen. Ilusioz eta debozioz gogoratzen dut Victor, bere neska-lagunarekin paseatzen eta denekin hizketan.

Handik gutxira, Victor bi den-

boraldiz itzuli zen Indautxura, baina abiada hartzeko bakarrik; izan ere, 1963ko udazkenean, Ochoak, orduko Athleticeko entrenatzaileak, berriro deitu zion San Mameseko zaleei ilusioa pizteko, baina, batez ere, eta jakin gabe, gertakari historiko baten protagonista izateko. 1964ko urtarrilaren 12an gertatu zen, Real Madril San Mamesera iritsi zen etazale guztiek zekiten Athleticen gol bat sartzen bazuen bere historiako 2000.a izango zela. Athleticen partida galdu zuen (2-3), baina, lehen gola Victorrekin zuten 40. minutuan, eta horrek poztu handia eragin zuen harmailetan.

El Correo egunkariak sari bat eman zion Victorri. Bilboren fundatzaile On Diegoren estatuaren erreplika zen eta Luis Bergarechek eman zion, 1929an lehen gola egin zuena. Urte batzuk geroago, Athleticen zenbaketa berri bat egin eta zerrenda zuzenduzuen. Egiletza Jose Antonio Latorrerri eman zioten, baina laudioarrentzat 2000. gola Victorrena izango da beti.

Ondoren, bere herritik irteteko aukera iritsi zitzaion, Athleticetik joandako beste bost taldekideekin batera Huelvara joateko. Victor eta Mari Carmen ezkondu berriak ziren, eta urte ahaztezina igarozuten Huelvako lurretan, azkenean etxera itzuli, familia osatu eta 1974ra arte Laudioko futbolzaletasunari poztu handiak ematen jarraitzeko.

Victorrek figura handiekin partekatu zuen aldagela, eta denak izan ziren bere lagun handiak: Carmelo, Iribar, Garay, Lopez, Orue, Etura, Canito, Beitia, Renteria, Mauri, Marcaida, Uribe, Arretxe, Arieta I, Maguregui, Etxabe, Aguirre, Zorriketa, Aranguen, Uriarte, Saez, Latorre, Argoitia, Arieta II, eta abar. Denek ohoratu zuten Victor, bere xumetasun, apaltasun eta eskuzabalatasun balioak ezagutu zituztenean.

CD Villosa, Deportivo Alaves, CD Basconia, SD Indautxu, Athletic Club, Recreativo de Huelva eta SD Llodio taldeen zaleek ez dituzte inoiz ahaztuko klub horien emandako une loriatsuak.

#### Omenaldia

Joan den ostiralean, urte askoren ondoren, Laudio KE omenaldia egin zion Victorri. Ekitaldi xumea eta hunkigarria izan zen eta ehun lagun eta zale baino gehiago bertaratu ziren, ez baitzuten une zoragarri hori galdu nahi. Bertan, Victorren futbol-ibilbidea gogoratu zuten, Lamuza parkeko kasinoaren esparru paregabean proiektatutako irudi bene-

tan hunkigarriekin, horietako batzuk oraindik argitaratu gabeak. Athletic Clubeko ordezkari ospetsuak ere egon ziren, hala nola Andoni Goikoetxea, Jose Mari Nuñez 'Txato', Juan Carlos Vidal, Pablo Otaolea, Manolo Delgado eta Juanjo Campa, eta Villosako taldekide ohiak, Lecue, 'Zarrita' eta beste asko.

## Victorrek figura handiekin partekatu zuen aldagela, eta denak izan ziren bere lagun handiak: Carmelo, Iribar, Garay, Lopez, Orue, Etura, Canito, Beitia, Renteria, Mauri, Marcaida, Uribe eta abar

Jon Uriarte Athleticen presidentea bideo-mezu bat bidali zuen Victor gogorazteko. Gauza bera egin zuen Jose Angel Iribarrek ere, benetako mito bizidunak, ezin izan baitzen omenaldian egon aldakako ebakuntza egin berri ziotela-eta.

Victorrek oroitzapen ugari jasozituen, bai Laudio KErenak, bai Athleticen jokalariek ohien elkartearnak. Ekitaldia amaitzeko, solasaldi txiki bat egin zuten, non Victorren giza kalitatea nabarmendu zen, ezagutu genuen pertsona guztiok busti gintuena.

Victorren kirol historiaren hasiera eta amaiera bere lagun Jose Mari Cascallana 'Casca'-rekin lotuta egon zen. 1945ean, Alzarrate-Laudion elkarrekin egin zuten debuta Villosa gazteen taldean, Victorren golarekin. 1980an, Ellakuri-Laudion, Victorrek bere azken partida jokatu zuen 42 urterekin, Cascaren hilondoko omenaldian. Hura izan zen bere azken gola ere.



Goian, omenaldiko bi une. Beheko argazkian, Urquijok Athleticen jokaturako lehen partidua, 1959ko irailaren 20an. Athletic Cluba

# kirola

TRAIL-A

## Uztailaren 22an izango da Aretako V. trail lasterketa

Testua  
**Jone Gartzia Gerra**

Ekainaren lehen egunean zabaldu zuten Areta Trail taldeak herrian finkatzen hasia den mendi lasterketan parte hartzeko izen-ematea. Korrikalariak Buscametas atarian eman behar dute izena, edo egunean bertan apuntatu.

Uztailaren 1a baino lehen egin zutenek 12 euro ordaindu zituzten. Orain ordea, Internet bidez edo egunean bertan izena emango duten korrikalariak 15 euro ordaindu beharko dituzte dortsalaren truke. Web atarian egiten dutenek, ordea, opari bat jasoko dute ordainetan. Nolanahi ere, antolatzaileek jakinarazi dute plazak mugatuak direla.

Ohi legez, antolatzaileek izen-emate bakoitzeko bi euro

emango dizkiote elkarte bati. Aurretan elkarte onuraduna Areta Guraso elkarte izango da.

### Jaietako egitarauaren barne

Lasterketa uztailearen 22ko arratsaldeko 18:00etan abiatuko da Aretako zubitik, herriko jaietako bigarren egunean, hain zuzen. Lasterkariak 13 kilometroko mendi ibilbidea osatu ostean eta 750 metroko desnibel positiboari aurre egin eta gero, leku berean zeharkatu beharko dute helmuga.

Ibilbidean zehar bi horniketaren puntu egongo dira: 5,5 kilometroan eta helmugan. Jaki eta edari likidoak eta solidoak banatuko dituzte bertan. Ez da asko falta lasterketarako eta plazak mugatuak dira baina oraindik ere izena emateko tarte da.

ESKUPILOTA

## Kantxan tokia hartuz doa Iker Larrazabal



Urte oparoa ari da izaten Iker Larrazabal pilotari gaztearentzat. Aiaraldea.eus

Testua  
**Aimar Gutierrez Bidarte**

Profesional mailan lekua hartuz doa Iker Larrazabal pilotari aiararra. Promozioako Binakako Txapelketako txapela jantzi eta lehenengo mailan Mikel Urrutikoetxearen ordezkotza bezala lan txukuna egin ostean, Baiko enpresak aukera berri bat eskaini dio Olabezargo pilotariari: udako Masters CaixaBank txapelketan aritzea.

Jose Javier Zabaletaren aurrelaria izango da Larrazabal udako norgehiagokan. Atzelari nafarrak lana asko erraztuko dio gero eta eskarmentu gehiago pilatzen ari den aurrelari aiararrari. Uztailearen 21ean abiatuko da Masters CaixaBank txapelketa

Urrestillako frontoian. Larrazabal eta Zabaleta uztailearen 25ean estreinatuko dira Elordi eta Albisuren aurka, Baztango frontoian jokatu den norgehiagokan. Txapelketako finala urriaren 1ean jokatu da, Iruñeko Nafarroa Arena frontoian.

### San Fermin torneo

Masters CaixaBank txapelketa ez da Larrazabalek uda honetan goi-mailan jokatu duen txapelketa bakarra. Iragan astean aurkeztu zuten pilotazaleen egutegietan gorritz markatutako San Fermin torneo, eta bertan ere izango da Larrazabal. Txapelketa honetan Jon Mariezkurrenaren aurrelari izango da aiararra.

TXIRRINDULARITZA

## Laia Sagarduy Ercillak 5. eta 9. postuak eskuratu zituen Espainiako Txapelketan

Testua  
**Aitor Aspuru Saez**

Oso pozik dabil Laia Sagarduy Ercilla txirrindulari gaztea denboraldi honetan egindakoarekin, eta arrazoiak baditu. Arabako Txapelduna izan ondoren, Euskadiko Selekzioarekin 5. eta 9. sailkatu da Espainiako Txapelketan, ginkana eta errepede lasterketetan, hain zuzen.

Cartagenan izan da lehiaketa asteburuan eta Sagarduyk beste hiru neskekin osatu du taldea errepedeko eta ginkana probetan. Azkenean, es-

kualdeko kirolaria selekzioko onena izan zen bere kategorian eta esperientzia paregabea izan du.

Hori baino lehen, gazteak lortu zuen Arabako txapelduna izatea. "Horretarako aurtengo Challenge eredu txapelketako onena izan nintzen, errepedeko, mendiko eta ginkana probak eginda", azaldu dio Aiaraldea Komunikabideari. Hori ez ezik, Euskadiko Txapelketa ere lehiatu zen Urretxun-mendiko diziplinan- eta Zumarragan-non errepedeko eta ginkana probak egin zituz-

ten-. 13 urteko txirrindulariak duela bi urte eman zuen izena Audioar Txirrindulari Elkarte eskolan eta garapen bikaina izan du. Edonola ere, Laiak azpimarratu du, emiatzak baino, oso ondo pasatzen duela: "Astean birritan entrenatzen dugu eta asteburuetan lasterketa daukagu. 7 eta 14 urte bitarteko gazteak gaude eta adin horretan dagoen neska-mutil oro animatu nahi dut parte har dezan, batez ere, neskak, gutxi gara eta. Espero dut nik bezala oso ondo pasatzea bizikleta ginean".

# #UdariKlik

## UDAKO ARGAZKI LEHIAKETA 2023

*Kategoriak eta sariak*

- **AIARALDEA** Laudioko El Lío jatetxean, bi lagunentzako 60 euroko bazkaria edo afaria.
- **MUNDUA** Trebiñu sagardotegian bi lagunentzako 70 euroko bazkaria.

*Parte hartzeko*

Lanak aurkezteko **epea irailaren 15ean** amaituko da. Argazkia ez ezik, **euskarazko izenburua ere** bidali beharko da.

- **WEBGUNE BIDEZ**  
<https://labur.eus/udariklik2023>
- **SARE SOZIALEN BIDEZ**  
Twitter eta Instagram #udariklik aipatuta
- **WHATSAPP EDO TELEGRAM BIDEZ**  
688 848 152, izen-abizenak aipatuta

*Irabazleak*

**Irailaren 16tik 23ra bitartean** Aiaraldea.eus webguneko **erabiltzaileek bozkatu**ko dituzte argazki gogokoak eta kategoria bakoitzeko lehen hamarren artean hautatuko dituzte **epaileek** nortzuk izango diren **irabazleak**.

**Epaimahaia:**

- JOSU ZALDIBAR (Blackkamera eskolako zuzendaria)
- MAIED URRUTIA (Amurrioko Kultura Etxeko argazkigintza ikastaroen irakaslea)

Egile bakoitzak nahi beste argazki aurkeztuko ahalko du, baina bakarra igaroko da epamahiaren faseran.

AIARALDEA

KOMUNIKABIDE FAKTORIA

El Lío

TREBIÑU sagardotegia

# herriko plaza



BIDALI  
ZURE  
ZORION  
AGURRA!

Idatzi zure mezua eta bidali argazkia agurrak@aiaraldea.eus helbidera eta Aiaraldea.eus atarian plazaratuko dugu. Irailaren 14an argitaratuko da hamabostekariaren hurrengo zenbakia.

## Denborapasak

ERRAZA


		9			2		7	8
			4		1			6
1		6		9		5	2	4
	1			2	7			
2	8	7	5		6			
	3			4		8	2	
	9	2		6			1	
				8			6	
				4	3			

ZAILA

				8		7		2
	9		7					3
		7	5			4		
	5		8					
					5	3	8	
6			2	3	7		5	
	6	4			3		7	
7						2		
5	2		4			6		9

**DENBORAPASEN SOLUZIOAK** Sudoku, hitz-gurutatu eta hitz gezidunen soluzioak webgunean ikusgai: <http://www.aiaraldea.eus/users/denborapasak>

## Zozketa



**‘Landismo’ liburuaren  
ale bat zozkatuko  
du Aiaraldea  
Komunikabideak**

**‘Landismo’ liburuaren ale baten zozketa**

**Parte hartzeko** sartu [www.aiaraldea.eus](http://www.aiaraldea.eus) atarian **Zozketaren data:** Uztailak 14 15, 15:00etan.

## IRAKURKETA GUNEA

### NAZKATASUNA

**Idazlea:** Peru Magdalena eta Mikel Valverde

**Argitaletxea:** Ikaslar

Kuku! emozioen programaren barruan egindako ipuina da. Beste emozio batzuk bezala, kasu honetan idazleek nazkaren inguruan idatzi egiten dute. Haurrekin nazkaz aritzeko ipuin interesgarria eta emozio horren inguruan hausnartzeko aukera bikaina.




### BAMBULO

**Idazlea:** Bernardo Atxaga

**Argitaletxea:** Erein

**Adina:** 8 urtetatik gora

Hiru liburuz osatutako istoria da. Banbulo Bilbon bizi den pedigirik gabeko txakur normala da. Bere bizipenak kontatzen dizkigu, bidaiak eta abenturen artean. Banbulok bere jatorria deskubritzera jotzen du eta horrela hamaika bizipen izango ditu



## JOLAS GUNEA

### UDA DATOR

Oporretan daude haur eta gazteak, ondo merezitako oporretan. Deskantsurako oporrak, gozatzeko oporrak. Haurren ikasturtea luzea da eta egun bakoitzean eskolan ematen dituzten orduak asko dira (batzuetan lanaldi bat beste). Horregatik ondo merezitako oporrak dira.

Baina zer egin hainbeste denborarekin? Hemendik udarako etxerako lanen zerrenda interesgarria proposatuko dugu, ea zeinek lortzen duen denak egitea:

1. Izozki bat jan, norberak egin bada, askoz hobeto
2. Afari bat prestatu eta familian afaldu
3. Harearekin tarta bat egin
4. Udako ekaitzaren ostean putzu batean salto egin
5. Goiz batean txori baten txioa entzun
6. Igerilekuetara bonba estiloan bota
7. Bitxiloreekin lepokoa edo pultsera egin
8. Basora joan eta txoriei jaten eman
9. Lagun betkin barre egin
10. Zuhaitz batera igo eta mundua ikusi
11. Naturako elementuak hartu, harriak, makilak, loreak... eta eskulan bat egin.
12. Lagun bati edo familiako bati opari bat egin
13. Familiakoekin esku jolas bat egin
14. Uretara harriak bota
15. Lurrean edo harean errekatxoak sortu eta topeak jarri, igarabek bezala.
16. Zerua begiratu eta hodeien formak asmatu.
17. Harearen gainean korrika egin, ahalik eta azkarren.
18. Abesti bat entzun eta begiak itxita dantzatu zoratu arte.
19. Etxola bat egin, zuen udarako gordeleku sekretua eraiki.
20. JOLASTU ETA JOLASTU! Jolas berriak asmatu, jolasak gozatu...



Planak eta bidalitako etxerako lanak, ugariak dira. Erronka aurrean duzue ea proposatutako 20 ekintzetatik zenbat dituzuen eginda irailean!

**Nahi baduzue bidali zuen ekintzen argazkiak kokoriko@aiaraldea.eus helbidera eta irailean egunkari honetan ikusteko aukera izango duzue.**



**KOKORIKO**  
HEZKUNTZA FAKTORIA

### Nazkatasuna

Atzo ipuin bat irakurri nuen, Peru Magdalena eta Mikel Valverderen *nazkatasuna*. Bertan, nazkaz hitz egiten dute, baina, zer da nazka?

Oinarrizko zazpi emozioetako bat da, behintzat horrela definitzen dute aditu batzuk, (batzuk esaten dutelako emozioak anitzak direla eta ez daudela oinarrizko eta bigarren mailakorik direla). Oinarrizko zazpi emozioak, sorpresa, tristura, beldurra, haserrea, poztasuna, mespretxua eta nazka dira. Pertsona guztiek omen ditugu, baina testuinguruak eta egoerek modu ezberdinean sentitzera eramaten digute.

Haur bakoitza ezberdina dela esatea ez da berria ezta gauza arraroa, horrela baita, haur bakoitza berezia da, besteez ezberdina. Horregatik, emozioak modu ezberdinean bizi egiten dituzte. Nazka ere helduen ezberdin sentitzen dute.

Haurrek jolas eta esperimentazio bidez ikasten dute mundua eza-gutzen. Jolas eta esperimentazio prozesu gehienek berezkoa dute zikintzea, batez ere adin txikiko kasuan. Helduok zikintze hori nazka emozioarekin lotzen dugu, beraien ikasketa prozesuak eten egiten ditugu. Haurrari, helduaren emozio baten jolasa apurten dio eta bertan lantzen ari zena edo ikasten ari zena ere.

Haur horrek, agian ez du nazkarik sentitzen zikintzeagatik, baina, helduok eta, batez ere erreferentziazko helduok, behin eta berriz errepikatzen badiogu "hau nazka ez zikindu", ikasiko du horrela dagoenean nazka sentitu behar duela eta, beraz, bere jolasa mugatu egingo dugu.

Honekin ez dut adierazten, garbitu behar ez ditugunik haurrak edo zikin gaudenean gauza batzuk ezin direla egin, baizik eta haurren emozioetan ez sartzea, gure emozioak ezarritik. Hau da, haurra jolasean dago kalean, zikindu da eta etxera sartzeko garbitzea edo arropa hori kentzea normala izan daiteke. Edo etxean eskuekin jaten ari da eta jan ondoren eskuak garbitzea. Garrantzitsua da behin jolasa edo prozesua bukatzerakoan adieraztea zer den egin behar duena ez prozesuaren erdian.

Konturatu behar gara nazka emozio pertsonala dela, bakoitzak berea daukala, batzuentzako zikintasuna, besteentzat muxu bat, beste batentzat elikagai bat edo usain bat...

Hasierako ipuinak esaten duen moduan "nazkatasunean" hezi




**Zeeer?!** Zer ari da pentsatzen balea? Eman marrazkitxo bakoitzari dagokion hizkia eta asmatuko duzu. Horretarako, erabili beheko hizki-marrazki hiztegia.

Activity area for the 'Zeeer?!' puzzle. It contains five rows of icons representing various nautical and pirate items, each with a corresponding empty circle below it for labeling. The icons include: a palm tree, a ship, a skull and crossbones, a parrot, a fish, a skull, an anchor, a treasure chest, a fish, and a skull; a treasure chest, a ship, a skull, a treasure chest, a treasure chest, a fish, a treasure chest, a skull, a skull, and a fish; a treasure chest, a ship, a skull, a crab, a fish, an anchor, a ship's wheel, a fish, a treasure chest, a treasure chest, and a treasure chest; a treasure chest, a treasure chest, a compass, a treasure chest, an anchor, and a skull; and a cutlass, a fish, an anchor, a compass, a fish, a fish, a skull, and a skull.

# IKUSI-MAKUSI

Zer ikusten du piratak bere katalogatik? Aukeratu irudi ona.



### HIZKI-MARRAZKI ALFABETOA




# Engainagarriak

Txanpon eder hau goiko altxorretik atera da. Ondoko puskei erreparatu eta esan zeintzuk diren onak eta zeintzuk imitazio txar batekoak.




## SOLUZIOAK



# Kontra

## Mundutik Aiaraldera



### Ousmane Ouedraogo

JAIOTERRIA  
**BURKINA FASO (1985)**

BIZILEKUA  
**LAUDIO**

BIDAIAREN XEDEA  
**GKE BATEAN LANEAN ZEGOELA ORAINGO EMAZTEA  
EZAGUTU ETA LAUDIORA ETORRI ZEN BIZITZERA**



### BURKINA FASO



#### DESKRIBAPENA

Mendebaldeko Afrikako estatua da. Fantziar kolonia izan zen 1960ra arte. Volta Garaiko Errepublika zen herrialdearen izena harik eta Thomas Sankara presidenteak oraingo izena jarri zion arte, 1984an. Burkina Faso izenak "jende zuzenaren lurra" esan nahi du mossiera eta diula hizkuntzetan.

#### AZALERA

274.200 kilometro koadro.

#### BIZTANLEAK

22,67 milioi biztanle.

#### HIZKUNTZAK

59 tokiko-hizkuntza, tartean; mossi, diula eta fula

#### Argitaratzailea:

Aiaraldea Kooperatiba Elkarte  
**Tirada:** 10.000 ale.  
**Maiztasuna:** Hamabostekaria  
**Lege gordailua:** BI-1230-2013  
**Posta elektronikoa:**  
egunkaria@aiaraldea.eus  
agenda@aiaraldea.eus  
erredakzioa@aiaraldea.eus  
**Publizitatea:** publizitatea@aiaraldea.eus  
**Tifnoa:** 688 62 53 94  
**Helbidea:** Errotari kalea 4-8 pabilioia,  
Laudio. Araba. 01400  
**Telefonoak:** 94 656 85 54/688 62 59 00  
**Web-gunea:** www.aiaraldea.eus  
**ERREDAKZIO OHARRA:** Aiaraldea Aldizkariak ez du bere gain hartzen iritzi artikuluetan, zein egindako elkarrizketetan adierazitakoaren erantzukizuna.

#### ESKER BEREZIAK BANATZAILA BOLUNTARIOEI:

Sofia Cisneros, Aitziber Alava, Josu Zabala, Iraia Pereiro, Genma Corbella, Endika Arribas, Christian Alemany, Gartzan Garaio, Aitor Fernandez, Jon Catalan, Iñaki Larrakoetxea, Jabi Asurmendi, Lander Ria, Xabi Ugalde, Alberto Gutierrez, Eunate Ekhiñe

## “Laudioko auzokide bat gehiago naizela sentitzen dut, babestua nago hemen”

### Zerk ekarri zintuen Burkina Fasotik Laudiora?

Pixka bat arraroa da. Ni gobernu kanpoko erakunde batean ari nintzen lanean. Nire emaztea, Ixone, Arquitectos Sin Fronteras erakundearekin joan zen bertara lanera, nekazaritza-eskola bat eraiki behar zuten Burkina Fason. Lan egin ahal izateko herrialdeko erakunde baten laguntza behar zuten. Niri egokitu zitzaidan Arquitectos Sin Fronteraseko lantaldearekin aritzea. Horrela ezagutu nuen nire emaztea, eta horrek ekarri nau Burkina Fasotik Euskal Herrira.

### Zertaz arduratzen zen zuk lan egiten zenuen gobernu kanpoko erakundeak?

Azpiegiturak eraikitzeaz eta nekazaritza eremuan laguntzeaz arduratzen ginen nagusiki. Errepide eta bideak eraikitzen genituen, baina, batez ere, ikastetxeak eraikitzen genituen. Izan ere, hezkuntza

tan gabezia handia dago Burkina Fason.

### Nola gogoratzen dituzu zure lehenengo urteak Euskal Herrian?

Aldaketa izugarria da, brutala. Etxebizitzek atentzioa ematen deitzen zidaten, oso altuak dira. Bizitza orokorrean oso deigarria zitzaidan. Ikusten nuen mundu guztiak denetarik zuela. Nire jatorrizko herria Arbolle departamentuan zegoen, eta bertan ez zegoen ezer.

Lehenengo urtean nuen zailtasunik handiena hizkuntza zen. Nik frantsesez egiten nuen baka-rik, eta Ixonerekin komunikatu ahal nintzen soilik. Pixkat baka-rik nengoen zentzu horretan.

Aitortu behar dut nire aita-ama-ginarrebekasko lagundu nindutela. Burkina Fasotik iritsi nintzen-erako HHEn izena emanda nengoen. Gaztelania ikasi nuen ber-

tan. Oso lurreratze erraza izan nuen. Beste batzuk ez dute hainbesteko erraztasunik. Nire emaztearen familian bat gehiago bezala hartu naute lehenengo momentutik.

### 10 urte igaro dira Burkina Fasotik etorri zinenetik. Aldatu da zure ikuspuntua?

Ohituagoa nago orain hotza jasatera (barreak). Eguneroko bizitzara ere moldatu naiz. Euskara ikasten ari naiz poliki-poliki. Bi seme alaba ditugu, eta orain ulertu egiten dut euskaraz hitz egiten dutenean, baina erantzuteko zailtasunak ditut oraindik. Idatzitako hitzak ere ulertzen ditut, eta telebistan entzuten ditudanak.

### Oztopoak ere aurkituko zenuen bidean.

Nik neuk arrazismoa pairatu dut azalean. XXI. mendean gaude, aurrera egin beharra dugu guz-

tiok. Kaletik noanean behin baino gehiagotan ikusi ditut begirada arraroak, emakume batek boltsoa estutzea lapurtuko diodalakoan, haurren batek nik ikutu dudana pilota hartu nahi ez izatea... Ezagutzen ditut egoera latzagoak igaro dituztenak ere. Ezin dugu jendea desberdin tratatu azalaren koloregatik. Baina, orokorrean, gauza positibo gehiago jaso ditut negatiboak baino. Laudioko auzokide sentitzen naiz, babestua nago hemen.

### Faltan sumatzen duzu Burkina Faso?

2013an bertatik alde egin nuenetik hiruzapalau aldiz egon gara bertan, azken aldia 2019an. Harremana mantentzen dut egunero bertako familiarekin, baina, batez ere gaztetako lagunak ditut faltan. Hemen ere badituzte lagunak, baina, betiko horiek ditut faltan. Baita amaren sukaldea ere.

EGUNKARI HAU LAGUNTZEN DUTE:

